BALDINTZA TEKNIKO PARTIKULARREN PLEGUA GORLIZKO OSPITALEKO JASOGAILUEN PREBENTZIOZKO MANTENTZE-ZERBITZUA EMATEKO

2021/02241 Espedientea

Urezarantza ibiltokia 1. 48630 Gorliz - BIZKAIA
Tel.: 944 006 600 Faxa: 944 006 627

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1.- HELBURUAREN DESKRIBAPENA

Kontratu honen xedeak lote bakarra du eta horrek arautuko ditu Gorlizko Ospitaleko igogailuen eta karga-jasogailuen prebentziozko mantentze-lanak.

2.- JARDUN-EREMUA

Agiri honen jarduketa-eremuan sartzen dira ospitaleak dituen jasogailuak, soilik jarraian zehazten direnak:

KONTRATUKO JASOGAILUEN DATUAK						
UNITATEA	**JASOGAILUEN ERREGISTROKO ZENBAKIA**	**Marka/ modeloa**	**Karga (kg)**	**Kokapena**	**Ateak**	
					Solairuak	**Kabina**
P0484 OHATILA-IGOGAILUA	48-00015088	EGUREN	1.500	Erdiko eskailera	4	1
OHATILA-IGOGAILUA	20338	KONE	1.600	Erdiko eskailera	4	1
P1969 KARGA-JASOGAILUA	48-00100433	EGUREN	1.500	Erdiko eskailera	4	1
KARGA-JASOGAILUA	8120	EGUREN	1.500	Sukaldea	4	1
P1970 IGOGAILUA	48-00100434	EGUREN	600	Erdiko eskailera	4	1
IGOGAILUA	545	EGUREN	300	Eskuineko dorrea	4	1
IGOGAILUA	546	EGUREN	300	Ezkerreko dorrea	4	1

3.- EGIN BEHARREKO JARDUERAK

a) Plegu honen jardun-eremuko ekipamenduen eguneroko mantentzea, behaketa eta kontrola egitea, gerta litezkeen matxuretan harrapatuta gera daitezkeen pertsonen erreskatea barne.

b) Gailuen zati mekanikoen, hidraulikoen eta, hala badagokio, elektriko eta elektronikoen mantentze-lan prebentiboak eta zuzentzaileak egitea, aldizkako berrikuspen-programa zehatzaren arabera eta indarrean den araudiari jarraikiz. Horren barruan hobien eta makina-gelen garbiketa eta kontserbazioa daude.

c) Matxuren laguntza teknikoak: ospitaleak jasogailuetan gertatzen diren matxurak konpontzeko egiten dituen abisu guztiei erantzungo zaie ahalik eta arinen. Aldizkako bisita bakoitzean edo abisu baten ondoriozkoetan, egindako mantentze-lanen berri emango zaio ospitaleari, eta horiek justifikatzeko, albaran bat egingo da. Halaber, ospitalera hilero aldiari dagozkion esku-hartze guztien txosten zehatza bidaliko da.

   Gainera, igogailua funtzionamendu- eta segurtasun-baldintza onetan egoteko behar diren kontratuaz kanpoko konponketen edo ordezkapenen berri emango zaio ospitaleari, onar ditzan.

d) Eskulanaren, joan-etorrien eta, halakorik badago, dieten gastuak adjudikaziodunak ordainduko ditu.

e) Emergentziako deiei eguneko 24 orduetan eta urteko 365 egunetan erantzuteko konpromisoa hartzen du, eta erantzuteko denbora ordu erdikoa izatekoa.

Emergentziak dira kabinan itxita gelditu diren pertsonak erreskatatzeko, mugikortasun murriztua duten erabiltzaileen joan-etorria galarazten duten igogailu geldituak konpontzeko eta pertsonei edo elementuei kalte egiten dieten edo kalte egin diezaieketen istripuetan edo egoeretan laguntzeko eskaerak.

f) Mantentze-lanak zentroaren funtzionamendu normala oztopatzen ez den ordutegian egingo dira, larrialdi kasuetan izan ezik. Gainera, beharrezkoa balitz, ospitaleko mantentze-lanetako arduradunarekin koordinatuko dira.

g) Adjudikaziodunak erakunde ofizialetara eta kalitate-kontroletara joateko konpromisoa hartzen du, plegu honetan islatzen den bezala.

h) Kontratua sinatzen denean, enpresa adjudikaziodunak plegu honetako instalazioen beharretara egokitutako prebentziozko mantentze-lanak egiteko lan-plan bat aurkeztuko du.

i) Ospitaleko Zuzendaritzak zehaztuko du zer-nola lortu materialak eta zer-nola eraman hondakinak.

j) Adjudikazioduna arduratuko da aipatutako zirkuituak garbitzeaz, hari dagokion zatian.

k) Adjudikaziodunak gailuak geldiaraziko ditu istripu bat izateko arriskua dagoela uste duenean. Istripurik bada, enpresa kontserbatzaileak dagokion industria-ordezkaritzari jakinaraziko dio eta etenik gabeko zerbitzua eskainiko du harik eta behar diren probak egin arte eta ordezkaritzak abiaraztea baimentzen duen arte.

l) Plegu honetan deskribatutako jarduketa guztietarako eskulana eskainitako prezioaren barruan sartuko da, salbu eta Erkidegoko, Estatuko, autonomia-erkidegoko edo

probintziako organismo ofizialek eta/edo aseguru-konpainiek edo elektrizitate-hornitzaileek agindutako araudizko aldaketen edo egokitzapenen ondorio direnak; horiek, bada, kargu gehigarria izango dute, aurretik aurrekontua eginda.

m) Otsailaren 8ko 88/2013 Errege Dekretua betetzeko, enpresa esleipendunak OCAren hautapena jakinarazi beharko du, gutxienez 60 eguneko epearekin, legeak lehiaketa honen xedea diren igogailuetako/jasogailuetako bakoitzarentzat adierazten dituen epeen arabera.

n) Kontratua indarrean dagoen bitartean plegu honen xedea diren prestazioen garapenari eragin liezaioketen araudi berriak argitaratuko balira, edo indarrean daudenak aldatuko balira, enpresa adjudikaziodunak jabetzari jakinarazi beharko dio eta dagokion eguneratzea egin.

o) Plegu honen baliozkotasun-datan aplika daitekeen indarreko legedia betetzeaz gain, enpresa adjudikaziodunak kontuan hartuko du igogailuen atalaren barruan UNE, ISO eta arau teknologikoetan zehaztutakoa, baita horien osagarriak edo ordezkoak diren beste arau batzuetan jasotakoa ere.

p) Enpresa adjudikazioduna plegu honen helburuko instalazioen dokumentu tekniko eta grafiko guztiak eguneratuta izateaz arduratuko da (ikusi Ezaugarri teknikoen liburua eta Ekipoaren mantentzea egiteko liburua), eta horien inguruan egindako edozein aldaketa erregistratuko du.

4.- MATERIALAK ETA ESKULANA

a) Ordezko piezak markaren originalak edo kalitate ziurtatuko homologatuak izango dira.

b) Instalazioak funtzionamendu- eta segurtasun-baldintza onetan mantentzeko beharrezkoa denean, higatu diren pieza hauek konpondu edo ordeztuko ditu, bere kargura,

Maniobra-koadroko elementuak:

- Bobinak, zirkuitu inprimatuaren plakak, abiadura doitzeko elementuak (maiztasun-aldaketa edo tentsio-kodegailuak).
- Erreleak, errele tenporizadoreak, kondentsadoreak, kontaktoreak, termikoa, transformadoreak, maniobra-koadroko etengailuak, baristoreak, fusibleak eta fusible-euskarriak, artezgailuak, erresistentziak, diodoak eta pilak.

Trakzio-sistemako eta makina-gelako elementuak, eta poleak:

- Trakzio- eta desbideratze-poleak, ardatz amaigabea, erretenak, kojineteak eta errodamenduak, motorra eta motorraren elementuak, harilkatuak, zorroak eta kojineteak.

- Freno-bobina, freno-zapatak, gomazko gurpilak eta freno-elementuak.

Instalazio oleodinamikoetan:

- Pistoia, elektrobalbulak, banaketa-mahuka eta zirkuitu oleodinamikoa.
- Manometroa, presostatoa, elektrobalbula-bobina eta, balbulen taldean, erreten-balbulak, malguki-balbulak eta juntura torikoak.

Ate eta kabinetako elementuak:

- Ateen itxitura automatikoak, motelgailuak, morroiloak eta barneragarria.

Igogailuaren berezko bi noranzkoko komunikazio-sistemaren elementuak, telefono-linea izan ezik:

- Transformadoreak, fotozelula-lanparak, alarma-elementuak, txirrin edo sirena, ateak ixteko segurtasun-kontaktuak, banda-buloiak, mikroetengailuak, gomazko topeak, polea-gurpilak, ate-irristagailuak, sakagailuak eta argiak.

Kabina-xasiseko, kontrapisuko, zuloko eta bestelako elementuak:

- Makina-gelako eta kabinako instalazio elektrikoa, eta hainbat kable, seinaleztapen-elementu, sakagailu eta pilotuak.

Zuloko eta kabinako maniobra-kontroleko, gelditze-kontaktoreko, gelditze magnetikoetako eta bide-amaierako eta pantailetako elementuak:

- Abiadura-mugagailua, tentsio-polea, zorroak, mugagailuaren kontaktu elektrikoa, ardatzak eta errodamenduak.
- Kabinaren kontrolgabeko mugimendurako segurtasun-sistema, eta ikadura-kontaktua.

Kabinako xasiseko eta kontrapisuko elementuak, irristagailuak, errodagailuak eta gainkarga-gailuak, trakzio-kableak, kableak eustekoak, kateak eta konpentsazio-kableak eta abiadura mugatzeko kableak:

- Kabinako eta kontrapisuko irristagailuak eta irristagailu-euskarriak, koipeak eta lubrifikazio-olioak.

c) Gorlizko Ospitalearen kontura izango dira gaizki erabili direlako edo instalazioak arrazoiz ez erabiltzearen ondorioz narriatu diren material edo piezen, eta eraikinari eragiten dioten egintza bandalikoen, suteen edo ezbeharren ondoriozko kalteen konponketak edo ordezkapenak.

d) Baita hauek ere: hasiera batean igogailuaren proiektuaren barruan ez zeuden elementuen ezaugarrien aldaketa edo elementuak jartzea, instalazioaren estetikaren narriadurak, kabinako dekorazioaren kalteak, pintura-akatsak, ateetako orri eta markoen kalteak, eta

araudi berriek eskatu ditzaketen eta organismo ofizialek etorkizunean exiji ditzaketen aldaketak.

e) Enpresa adjudikaziodunak Gorlizko Ospitaleari jakinaraziko dio gailuetako zer elementu konpondu edo ordeztu behar diren, dela funtzionamendu-baldintza onetan ez daudelako, dela aplika dakiekeen indarreko araudiko baldintzak betetzen ez dituztelako.

5.- *LANEKO ARRISKUEN PREBENTZIOA*

Enpresa adjudikaziodunak *laneko arriskuen prebentzioa*ren alorrean indarrean dagoen legeria bete beharko du. Zehazki, azaroaren 8ko 31/1995 Legea, urtarrilaren 17ko 39/1997 Errege Dekretua eta horren eguneraketak eta garatzeko xedapenak eta xedapen osagarriak, bai eta lan arloan prebentzio-neurriak hartu behar izateari buruzko preskripzioak dituzten gainerako lege-arauak ere.

Horren harira, kontratatutako zerbitzuak emango dituen enpresa adjudikaziodunaren langileek lanpostuari lotutako arriskuen ebaluazioari eta norbera babesteko ekipamenduei buruzko behar bezalako prestakuntza izan beharko dute.

Enpresa adjudikaziodunak, kontratua indarrean den bitartean, zehatz-mehatz bete beharko du sektoreari dagokion indarreko araudia, eta kontratuko jarduera teknikoak garatzeko kalifikazio tekniko egokia eta behar diren homologazio teknikoak lortu beharko ditu.

Batik bat urtarrilaren 20ko 171/2004 Errege Dekretua, *Laneko Arriskuen Prebentzioa*ri buruzko 31/1995 Legearen 24. artikulua garatzekoa. Errege Dekretu horrek, bada, *laneko arriskuen prebentzioa*ren arloko enpresa-jardueren koordinazioa egiteko oinarriak zehazten ditu, baldin eta lan-zentro batean bi enpresatako edo gehiagotako langileek lan egiten badute (langile autonomoak barne). Enpresa adjudikaziodunak 1627/1997 Errege Dekretuan –horren bidez zehazten dira eraikuntza-obretarako gutxieneko segurtasun- eta osasun-xedapenak– eta azpikontratazioa arautzen duen 32/2006 Legean zehaztutakoa beteko du.

Enpresa adjudikaziodunak arrisku mikrobiologikoak minimizatzeko gomendioak eta, oro har, obra eta instalazioetan egingo diren jarduketen ondoriozko pertsonen eta ondasunen segurtasunari eragingo dion legeria beteko ditu. Horrez gain, Ospitalearen berezko zehaztapenak beteko ditu, hauei dagokienez: Osakidetzaren Laneko Arriskuen Prebentzioa Kudeaketako Sistema, Su Baimenaren Protokoloa, Hondakinak Kudeatzeko Plana, Kontrata eta Azpikontratentzako Arriskuak, eta enpresa adjudikatzaileak garatu behar duen jardueraren arabera sar daitekeen beste edozein.

Enpresa adjudikaziodunak koordinazio aktiboa izango du Ospitalearekin, zenbait ekintza-mailatan, Osakidetzako *Laneko Arriskuen Prebentzioa* Kudeatzeko Sistemaren Kontratekin/Azpikontratekin Jarduerak Koordinatzeko Prozeduraren arabera:

1. Informazioa trukatzea *laneko arriskuen prebentzioa*ren arloan.

2. Enpresa adjudikaziodunak prebentzioko solaskidea izendatzea.
3. Ospitalearen eta enpresa adjudikaziodunaren arteko koordinazio-bilerak (aldez aurretikoak eta/edo aldizkakoak).
4. Enpresa adjudikaziodunak identifikazio-txartelak emango dizkie langileei.

6.- GAINBEGIRATZEA

Administrazioak kanpoko gainbegiratze fakultatiboa kontratatzeko aukera izango du, emandako laguntza tekniko osoa gainbegiratzeko.

Halaber, administrazioak ausazko bisitak ere egin ahal izango ditu mantentze-lanak behar bezala egin dituztela egiaztatzeko. Hori horrela, Osasun Zentroko zuzendaritzak aldian-aldian ebaluatuko ditu kontratatutako mantentze-lanak.

Ebaluazio horretan bezeroari emandako arreta, azkar erantzutea eta jarduketa teknikoen eraginkortasuna zein efikazia hartuko dira kontuan, baita sortutako hondakinen kudeaketa ere.

7.- KALITATE-KONTROLA ETA ERAKUNDE OFIZIALEI LAGUNTZA EMATEA

Enpresa adjudikaziodunak eginiko prebentzioko mantentze-lanen kalitate-kontrolari buruzko txostena egingo du urtero; kontratatutako instalazioen egoeraren balorazio teknikoa eta horiek etengabe hobetzeko proposamena berariaz jasoko ditu bertan, eta kontratu-baldintzak zehatz-mehatz bete dituela egiaztatuko du.

Lurralde-erakundeek, Industriako ordezkaritzak eta beste erakunde batzuek kontratu honi dagozkion instalazioetara egindako bisitetan enpresa adjudikaziodunaren arduradun bat egon beharko da.

Enpresa adjudikaziodunak aldez aurretik jakinarazi beharko du aldizkako gainbegiratzea noiz eskatu behar duen, Jasogailuen araudiaren Jarraibide Tekniko Osagarrietan ezarritakoari jarraikiz, eta horrez gain, gainbegiratu beharreko ekipamenduak ikuskatu ere egin beharko ditu, indarrean den araudiarekin bat etorriz, horiek egokitzeko hobetze-proposamena egiteko.

8.- INGURUMEN-KUDEAKETA

Kontratistak bere gain hartuko ditu kontratuari dagozkion jardueren ondorioz sortzen diren hondakin guztiak, Hondakinei buruzko Legean (apirilaren 21eko 10/1998) aurreikusitako ondorioetarako. Baimendutako kudeatzaileek sortutako hondakinak bildu, garraiatu eta ondoren

baliarazi edo deuseztatu egingo dituzte, eta adjudikaziodunak ordaindu beharko ditu hondakinak kudeatu, baliarazi edo deuseztatzeko tasak.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES PARA LA PRESTACIÓN DE SERVICIO DE MANTENIMIENTO PREVENTIVO DE APARATOS ELEVADORES EN EL HOSPITAL GORLIZ

Expediente 2021/02241

Urezarantza ibiltokia 1. 48630 Gorliz - BIZKAIA
Tel.: 944 006 600 Faxa: 944 006 627

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
OSASUN ETA KONTSUMO SAILA
DEPARTAMENTO DE SANIDAD Y CONSUMO

1.- DESCRIPCIÓN DEL OBJETO

El objeto del presente contrato consta de un lote único que regulará la actividad del mantenimiento preventivo de los ascensores y montacargas del Hospital Gorliz.

2.- AMBITO DE ATUACIÓN

Se incluyen en al ámbito de actuación del presente pliego, de los aparatos elevadores con los que cuenta el Hospital, sólo los que se identifican a continuación:

DATOS DE LOS ELEVADORES SUJETOS AL CONTRATO						
Nª UNIDAD	**Nª RAE**	**Marca/Modelo**	**Carga (kg.)**	**Ubicación**	**Puertas**	
					Pisos	**Cabina**
P0484 MONTACAMILLAS	48-00015088	EGUREN	1.500	Escalera Central	4	1
MONTACAMILLAS	20338	KONE	1.600	Escalera Central	4	1
P1969 MONTACARGAS	48-00100433	EGUREN	1.500	Escalera Central	4	1
MONTACARGAS	8120	EGUREN	1.500	Cocina	4	1
P1970 ASCENSOR	48-00100434	EGUREN	600	Escalera Central	4	1
ASCENSOR	545	EGUREN	300	Torre Derecha	4	1
ASCENSOR	546	EGUREN	300	Torre Izquierda	4	1

3.- TAREAS A DESARROLLAR

a) Mantenimiento, vigilancia y control diario de los equipos que forman parte de ámbito de actuación del presente Pliego, incluyendo el rescate de personas atrapadas en posibles averías.

b) Realizar el mantenimiento tanto preventivo como correctivo de las partes mecánicas, hidráulicas, en su caso, y eléctrico-electrónicas que componen los aparatos, según un programa de revisión periódico y exhaustivo acorde con la Reglamentación vigente en el que se incluye el correcto estado de limpieza y conservación de los fosos y cuartos de máquinas.

c) Asistencias técnicas de averías: serán atendidas todos los avisos efectuados por parte del hospital para corregir las averías que se produzcan en los aparatos elevadores a la mayor brevedad posible. En cada visita periódica o por aviso, se deberá informar al Hospital de los trabajos de mantenimiento llevados a cabo emitiendo un albarán que certifique la ejecución de los mismos. Así mismo se reportará mensualmente al Hospital mediante informe detallado, todas las actuaciones realizadas durante dicho periodo.

   Se comunicarán para su aceptación por el Hospital, aquellas reparaciones o sustituciones que, excluidas del contrato, resulten necesarias para mantener el aparato elevador en buenas condiciones de funcionamiento y seguridad.

d) El adjudicatario correrá con los gastos de mano de obra, desplazamientos y dietas si las hubiere.

e) Se compromete a atender las llamadas de emergencia, las 24 horas del día, los 365 días del año y a que el tiempo de respuesta sea de ½ hora.

   Entendiendo como emergencia todo requerimiento de intervención para rescatar personas encerradas en la cabina, ascensores parados que impiden el desplazamiento de usuarios de movilidad reducida, y en accidentes o situaciones en que producen o se pueden producir daños a personas físicas u otros elementos.

f) Las intervenciones de mantenimiento, cuando no se trate de una urgencia, se realizarán en aquellos horarios que no obstaculicen el normal funcionamiento del centro, y si fuera necesario en coordinación con el Jefe de Mantenimiento del Hospital.

g) El adjudicatario se compromete a asistir a entidades oficiales y controles de calidad, tal y como se refleja en el presente Pliego.

h) A la firma del contrato, la empresa adjudicataria presentará un Plan de Trabajo de ejecución del mantenimiento preventivo adaptado a las necesidades de las instalaciones incluidas en el presente Pliego.

i) El acceso de materiales y la evacuación de residuos se someterán a los horarios que la Dirección del Hospital estime oportunos.

j) El adjudicatario será responsable, en la parte que le afecte, de la limpieza de los circuitos mencionados.

k) El adjudicatario interrumpirá el servicio de los aparatos cuando se aprecie riesgo de accidente. En caso de accidente, la Empresa Conservadora deberá ponerlo en conocimiento de la Delegación de Industria correspondiente y mantener el servicio interrumpido hasta que se realicen las pruebas necesarias y la Delegación autorice su puesta en marcha.

l) La mano de obra irá incluida en el precio ofertado para todas las actuaciones descritas en el presente Pliego a excepción de aquellas que sean consecuencia de modificaciones reglamentarias o de adaptaciones ordenadas por Organismos Oficiales Comunitarios, Estatales, Autonómicos, Provinciales y/o Compañías de Seguro o Suministradoras de Electricidad, que serán con cargo adicional, siempre previo presupuesto.

m) En cumplimiento del Real Decreto 88/2013 de 8 de febrero, deberá la empresa adjudicataria comunicar, al menos con 60 días de plazo, la elección de la OCA conforme a los plazos que indique la Ley para cada uno de los ascensores/elevadores motivo de este concurso.

n) Si durante la vigencia del contrato se publicara nueva normativa o modificaciones a las existentes que pudieran afectar al desarrollo de las prestaciones objeto del presente pliego, la empresa adjudicataria deberá informar a la propiedad y proceder a la actualización correspondiente.

o) Además del cumplimiento de la legislación vigente aplicable a fecha de validez de este pliego, la empresa adjudicataria tendrá en cuenta lo especificado en el campo de ascensores en las Normas UNE, ISO y Tecnológicas o aquellas otras normas que las complementen o sustituyan.

p) La empresa adjudicataria se responsabilizará del mantenimiento actualizado de toda la documentación técnica y gráfica de las instalaciones objeto del presente pliego (véase Libro de Características Técnicas y Libro de Mantenimiento del equipo), registrando cualquier modificación que sobre las mismas se realice.

4.- MATERIALES Y MANO DE OBRA

a) Las piezas de recambio serán originales de la marca u homologados con calidad asegurada.

b) Cuando sea necesario para mantener las instalaciones en buenas condiciones de funcionamiento y seguridad, efectuará, a su cargo, la reparación o sustitución de las siguientes piezas sujetas a desgaste,

Elementos de cuadro de maniobra:

- Bobinas, placas de circuito impreso, elementos de regulación de velocidad, por variación de frecuencia o tensión encoders.

- Relés, relés temporizadores, condensadores, contactores, térmico, transformadores, interruptores de cuadro de maniobra, varistores, fusibles y portafusibles, rectificadores, resistencias, diodos y pilas.

Elementos de sistema tractor, cuarto de máquinas y poleas:

- Poleas de tracción y desvío, eje sinfín, retenes, cojinetes y rodamientos, motor y elementos de motor, devanados, casquillos y cojinetes.
- Bobina de freno, zapatas de freno, ruedas de goma y elementos de freno.

En instalaciones oleodinámicas:

- Pistón, electroválvulas, manguera de distribución y circuito oleodinámico.
- Manómetro, presostato, bobina de electroválvula, y en el grupo de válvulas retén, muelle y juntas tóricas.

Elementos de puertas y cabina:

- Cierres automáticos de puertas, amortiguadores, cerrojos y retráctil.

Elementos del sistema de comunicación bidireccional propios del ascensor, con excepción de la línea telefónica:

- Transformadores, lámpara de fotocélula, elementos de alarma, timbre o sirena, contactos de seguridad de cierre de puertas, bulones de bisagras, micro-interruptores, topes de goma, ruedas poleíllas, deslizaderas de puertas, pulsadores y luminosos.

Elementos de chasis de cabina y contrapeso, hueco, foso y otros:

- Instalación eléctrica del cuarto de máquinas, de cabina y cables múltiples, elementos de señalización, pulsadores y pilotos.

Elementos de control de maniobra en hueco y cabina, contactor de parada, paros magnéticos y final de carrera y pantallas:

- Limitador de velocidad, polea tensora, casquillas, contacto eléctrico de limitador, ejes y rodamientos.
- Sistema de seguridad para movimiento incontrolado de cabina y contacto de acuñamiento.

Elementos de chasis de cabina y contrapeso, deslizaderas, rodaderas y dispositivo de sobrecarga, cables de tracción, amarra-cables, cadenas y cables de compensación y cable limitador de velocidad:

- Deslizaderas y porta-deslizaderas de cabina y contrapeso, grasas y aceites de lubricación.

c) Serán por cuenta del Hospital Gorliz las reparaciones o sustitución de aquellos materiales o piezas deterioradas por el mal uso o por causas ajenas a la utilización racional de las instalaciones, así como los desperfectos ocasionados por actos vandálicos, incendios o siniestros que afecten al edificio.

d) Asimismo, cualquier cambio en las características o aportación de elementos, no incluidos originariamente en el proyecto del ascensor, los deterioros en la estética de la instalación, los desperfectos en la decoración de cabina, espejos, defectos de pintura, desperfectos en hojas y marcos de puertas, así como todas aquellas modificaciones por nuevas normativas, que en un futuro pudieran exigirse por organismos oficiales.

e) La empresa adjudicataria comunicará al Hospital Gorliz los elementos de los aparatos que han de ser reparados o sustituidos por apreciarse que no se encuentran en las debidas condiciones de funcionamiento o si no cumplen las condiciones de la Reglamentación vigente que le sean aplicables.

5.- *PREVENCIÓN DE RIESGOS LABORALES*

La empresa adjudicataria deberá cumplir con la legislación vigente en materia de *Prevención de Riesgos Laborales*. En concreto con la Ley 31/1995 de 8 de noviembre con el RD 39/1997 de 17 de enero y sus actualizaciones y con las disposiciones de desarrollo o complementarias y cuantas otras normas legales contengan prescripciones relativas a la adopción de medidas preventivas en el ámbito laboral.

En este sentido, el personal de la adjudicataria que ejecute los servicios contratados deberá ser instruido adecuadamente sobre la evaluación de riesgos asociada a su puesto de trabajo, así como los equipos de protección individual necesarios.

La empresa adjudicataria estará obligada, durante la ejecución del contrato a cumplir escrupulosamente la normativa vigente en relación al sector afectado, así como a obtener la calificación técnica adecuada y las homologaciones técnicas necesarias para el desarrollo de las actuaciones técnicas del contrato.

Especialmente el RD 171/2004 de 20 de enero, de desarrollo del artículo 24 de la ley 31/1995 de *Prevención de Riesgos Laborales*, donde establece las bases para realizar la coordinación de actividades empresariales en materia de prevención de riesgos laborales, siempre que en un mismo centro de trabajo desarrollen actividades los trabajadores de dos o más empresas (incluyendo trabajadores autónomos). La empresa adjudicataria cumplirá con lo establecido en el RD 1627/1997 por el que se establecen disposiciones mínimas de seguridad y de salud en las obras de construcción, así como la Ley 32/2006 reguladora de la Subcontratación.

La empresa adjudicataria cumplirá con las recomendaciones para la minimización de Riesgos Microbiológicos y en general con cualquier legislación que afecte a la seguridad de personas y bienes derivada de la actuación en obras e instalaciones afectadas. Así mismo cumplirá con las especificaciones propias del Hospital en lo relativo al Sistema de Gestión de *Prevención de Riesgos Laborales* de Osakidetza, Protocolo de Permiso de Fuego, Plan de gestión de residuos, Riesgos para contratas y subcontratas y cualquier otro que pueda incorporarse en función de la actividad a desarrollar por la empresa adjudicataria.

La empresa adjudicataria realizará una coordinación activa con el Hospital, en distintos niveles de acción, según el Procedimiento Coordinación de Actividades con Contratas /Subcontratas del Sistema de Gestión de *Prevención de Riesgos Laborales* de Osakidetza:

1. Intercambio de información en materia de *Prevención de Riesgos Laborales*.
2. Designación de interlocutor en prevención por parte de la empresa adjudicataria.
3. Reuniones de coordinación entre el Hospital y la empresa adjudicataria (previas, y/o periódicas).
4. La empresa adjudicataria dotará de tarjetas de identificación a sus personas trabajadoras.

6.- INSPECCIÓN

La administración se reserva la posibilidad de contratar supervisión facultativa externa para la supervisión global de la asistencia técnica desarrollada.

Asimismo, la administración se reserva la facultad de realizar visitas aleatorias para comprobar la correcta ejecución de los trabajos de mantenimiento realizados. En este sentido, la dirección del Centro Sanitario evaluará periódicamente el mantenimiento contratado.

En dicha evaluación se considerará la atención al cliente, la rapidez en la respuesta, la eficiencia y la eficacia de las actuaciones técnicas, así como la gestión de residuos generados.

7.- CONTROL DE CALIDAD Y ASISTENCIA A ENTIDADES OFICIALES

La empresa adjudicataria presentará con periodicidad anual un informe de control de calidad del mantenimiento preventivo efectuado con indicación expresa de la valoración técnica del estado de las instalaciones contratadas y la propuesta de mejora continua de las mismas, así como del cumplimiento exhaustivo de las condiciones del contrato.

Durante las visitas a las instalaciones objeto del presente contrato por parte de los Entes Territoriales, Delegación de Industria y otras entidades, deberá estar presente una persona responsable de la empresa adjudicataria.

Además de comunicar previamente la fecha en que le corresponde solicitar la Inspección Periódica según establezcan las Instrucciones Técnicas Complementarias del Reglamento de Aparatos Elevadores, la empresa adjudicataria deberá llevar a cabo una auditoria de los equipos objeto de inspección para que, de acuerdo con la normativa en vigor, hagan una propuesta de mejora para su adecuación.

8.- GESTIÓN MEDIOAMBIENTAL

El contratista asumirá la propiedad y posesión de todos los residuos que se generan como consecuencia de las actividades objeto del contrato, a los efectos previstos en la Ley 10/1998, de 21 de abril, de residuos. Se efectuará la retirada, transporte y posterior valorización o eliminación por gestores autorizados de los residuos generados, siendo por cuenta del adjudicatario el abono de las tasas de gestión, valorización o eliminación de los residuos.

ZERBITZU OROKORRETAKO ARDURADUNA
LA RESPONSABLE DE LOS SERVICIOS GENERALES

CRISTINA RODRIGUEZ VARONA

Firmado digitalmente por CRISTINA RODRIGUEZ VARONA
Fecha: 2021.10.04 14:35:31 +02'00'

CRISTINA RODRIGUEZ VARONA